Ilustratzailea: Laura Catalán

Itzultzailea: Aitor Arana

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2022 (Paper Txoriak Sail Berdea; 26)

ISBN: 978-84-1370-053-3

14 urtetik aurrera

Aretxabaleta, Karlos. *Txapel*

Sex-sua

Aduna (Gipuzkoa): Elkar, 2022 (Traola; 07)
ISBN: 98-84-1360-250-9

Olaetxea, Andoni

Fin barkua

Ilustratzailea: Maite Caballero

Donostia: Erein, 2022

ISBN: 978-84-9109-789-1

16 urtetik aurrera

Doxiadis, Apostolos

Osaba Petros eta Goldbachen aierua

Itzultzaileak: Ane Oliveros eta Gaizka Zabarte

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2022

ISBN: 978-84-17940-78-2

Zubizarreta, Patxi

Zerria

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Donostia: Erein, 2022 (Bioleta; 15)

ISBN: 978-84-9109-788-4

4 urtetik aurrera

Astiz, Iñigo

Kixkur, Pinttoren arreba

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Aduna (Gipuzkoa): Elkar, 2022

ISBN: 978-84-1360-212-7

Pintto txakurra jende guztiak ezagutzen eta kantatzen duena da. Baina kantuak dienez haratago, zer dakigu Pinttori buruz? Ezer gutxi. Eta bere arrebari buruz? (ba al zuen arrebarik?) Are gutxiago. Beraz liburu honetan Iñigo Astiz eta Mikel Valverdek Kixkurren, Pinttoren arrebaren berri ematen digute eta neba famatua izatea nolakoa den azaltzen da Kixkurren eskutik. Irakurri eta gozatu beharra dago bertan kontatutakoa jakiteko, baina liburuko esaldia da “Kalean uso, etxean txutxo”.

Testu eta ilustrazioek elkar osatu eta bat egiten dute irakurlea istorioan zehar umorez eramateko; umorea darie hitzei eta baita ilustrazioei ere. Narratzaile orojakile batek eguneroko egoera arruntetan zehar Pintto, baina batez ere Kixkur ezagutzeko, protagonista nola senti daitekeen ulertzeko eta normalean ikusten edo ezagutzen ez den hortaz hausnartzeko gakoak ematen dizkigu.

Pertsonen arteko elkarrekintza eta eguneroko elkarbizitza eta egoera arruntek sortzen dituzten sentipen eta gertaerak umorez eta oso modu dinamikoan azaltzen dira Iñigo astiz eta Mikel Valverderen liburuan.

Azcona, Marta

Opari ezberdin bat

Ilustratzailea: Rosa Osuna

Itzultzailea: Eva Linazasoro

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2022 (Amets egiteko liburuak)

ISBN: 978-84-9172-271-7

Zein izan daiteke jaso genezakeen oparirik preziatuena? Zertarako balio dezakete jasotzen ditugun opariak? Zer egin espero ez dugun opari bat ematen digutenean? Ba al dago irudimena martxan jarri eta oparia eman digun lagunarekin opariaz gozatzea eta abenturak bizitzea baino gauza hoberik? Tristane eta Martxelok opari on baten balioa eta aukerak erakusten dizkigute Marta Azconaren eta Rosa Osunaren lan honetan.

Hasiera bateko aurreiritziak deseraiki eta guztiz alda daitezkeela erakusten digu istorioak, gogoia eta kide egokiak horretarako lagun harturik.

Hitzeko eta hitzik gabeko orrialdeak tartekatzen dira, eta hitzen eta ilustrazio hutsen arteko oreka lortzen dute autoreek. Behin eta berriro ikusteko liburua da, lehenengo irakurketan ikusten ez diren pertsonaiei eta bigarren planoko irudiei begiratzen bazaie.

Ilustrazioei mugimendua darie, hasieratik bukaerara arte. Ilustrazioetarako tekniken aniztasunak aberasten du kontakizuna, ia uki daitezkeen uneak dakartza eta. Liburuak oparitzen duen oihal zatiak irakurlearen irudimenari gonbidapena egiten dio, ikusmenaz gain ukimenari ere dei eginez.

Bournay, Delphine

Baso ilun eta sakonean

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz

Tafalla (Nafarroa): Txalaparta, 2022 (Txo!)

ISBN: 978-84-18252-97-6

Liburuaren azaleko baso ilun eta sakonak umearen jakin-mina sortzen du. Baita erne eta zabalik dauden begiek ere. Eta, nahiz eta senak haurrari esan arrisku baten aurrean dagoela, liburua gogo biziz zabalduko du, barruko jakin-minari segituz.

Lehenengo orrialdeetan, ezker aldean, letra larriz idatzitako testu labur batekin topo egingo dugu, eta, eskumaldean, baso ilunarekin. Misterioz betetako orrialdeak dira, ez baitakigu nor dagoen irudikatutako begi eta hortz horien atzean. Uhuriekin, azkenean, otso ama azalduko da, eta, misterioa argitzeaz gain, eskumaldea ere irudiz beteko da.

Otsokume maitagarriek amaren gaueko musua nahi dute; izan ere, ondo baino hobeto ezagutzen dute lokartzeko errutina. Begizuloekin irudikatzen den otso amak ahalegin guztiak egingo ditu otsokumeak lokartzeko, eta, begiak kliskatzen hasten zaizkienean, otso amak ustekabeko bat izango du.

Lokartzeko errituari buruzko ipuin hau behin eta berriro kontatzen den horietakoa da. Gainera, irakurlearen aurreiritziekin talka egingo du: batetik, basoa leku arriskutsu izatetik otso familia baten bizileku izatera pasatuko delako; eta, bestetik, hasiera batean beldurgarriak iruditzen zaizkigun begi eta hortz zorrotzak otsokume sinpatikoak izatera pasatuko direlako.

Irudi ilun eta adierazgarriek bikain osatzen dute Delphine Bournayk idatzi eta irudikatutako kontakizuna. Txikientzako album dibertigarri eta bihurria. Begi-bistatik ezin gal dezakeguna.

Cutbill, Andy

Arrautza bat errun zuen behia

Ilustratzailea: Russell Ayto

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2022

ISBN: 978-84-17940-88-1

Azaleko txikle arrosa-koloreak eta tituluaren purpurina letrek ezin dute ekidin gure begirada beste bi elementu hauetara joatea: bat, behiaren begi samurrak; eta bi, arrautza zuri-beltza. Harridura sortzen du hunkigarria dirudien egoera bat purpurina eta kolore biziak, eta, horregatik, haurrak berehala iragarriko du sorpresaz betetako album baten aurrean dagoela. Orriak pasatu ahala, misterioz ez ezik umorez ziprztindutako albuma dela konturatuko gara.

Protagonista nagusia Marjorie behia da. Marge oso triste dago arrunta baino arruntagoa sentitzen delako, eta haren lagunek, oiloek, trikimailu bat prestatuko dute tristura horretatik ateratzeko.

Trikimailuak –izenburuan aurreratzen da zein den– ezin hobeto funtzionatuko du, eta Marge askoz ere bereziagoa sentituko da. Hala ere, gainerako behiak ez dira poztuko; izan ere, etxaldeko protagonismoa galdu dute, eta hura berreskuratzeko lanetan hasiko dira.

Andy Cutbillen testu laburra, indar handikoa, Russell Aytoren irudi are indartsuagoekin nahasten da, eta emaitza bikaina lortzen dute. Juan Kruz Igerabideren itzulpenak borobiltzen du jatorriz ingelesez idatzitako lan hau. Bukaera txundigarriak, irribarrea zabaltzeaz gain, bihotza ere zabalduko digu.

Bai eskolan, bai familian, hainbat gai lantzeko bidea ematen du –besteak beste, laguntasuna, enpatia, adopzioa eta aniztasuna–, nahiz eta liburuaren jomuga istorio dibertigarri bat kontatzea izan.

Jadanik argitaratu dira Marjorie behiaren beste abentura batzuk ingelesez eta gaztelaniaz. Euskarazko Margeren beste istorio baten itzulpenaren zain geratzen gara.

Garibal, Alexandra

Jateko modukoa!

Ilustratzailea: Marianne Vilcoq

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2022 (Potxolo eta Aitotso)

ISBN: 978-84-1370-347-3

Otso jaunak otso maltzur eta boteretsu batek izan beharreko ezaugarri guztiak betetzen ditu: indartsua da, jatuna, ehiztari aparta, borrokalaria, eta ez du ezeren beldurrik. Eroso bizi da bere etxean bakarrik, baina, halako batean, norbaitek atea jo eta saski misteriotsu batean abandonatutako untxi nimiño bat utziko dio ate aurrean. Hau zortea izan duena, biharamuneko bazkaria prest! Baina gauzak ez dira irtengo otsoak pentsatu bezala, eta untxiaren presentziarekin dena aldatuko da otsoaren eguneroko bizitzan.

Familia arteko maitasunaz hitz egiten du liburu honek. Kontakizunak ustekabeko bira ematen du, eta otso maltzuraren ezkutuko bihotz biguna agerian geratuko da poliki-poliki.

Ilustrazio bizi, alai eta koloretsuen bitartez protagonisten arteko harremana nola sendotzen den ikusiko dugu. Bestalde, aipatzekoa da Patxi Zubizarreta idazleak egindako itzulpena; ahozkotasunetik jasotako euskal lokuzioz josita dago testua (aiko-maiko, kirrikilun-karrakilun, zinbulu-zanbulu...), eta horrek, kontakizuna aberasteaz gain, erritmoa eta naturaltasuna eransten dio.

Garibal, Alexandra

Lotara, Potxolo!

Ilustratzailea: Marianne Vilcoq

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2022 (Potxolo eta Aitotso)

ISBN: 978-84-1370-348-0

Potxolo eta Aitotso saileko bigarren alea dugu honako hau. Patuak lotutako bikote bitxi honek (untxia eta otsoa) familia bat eratu du dagoeneko, eta, familietan gertatzen den modura, egunerokotasuneko ohiko gorabeherak biziko dituzte. Egun luze baten ondoren, Aitotso merezitako atsedendiaz gozatzeko prest dago. Besaulkian luze etzan, liburu bat zabaldu, baina... Lo egiteko ordua une zaila izaten da etxe askotan; haurra lokartzeko erritualak errepikatzen dira, baso bat ur edan, txiza egin, ipuina irakurri, musu bat eman... Azken finean, aitzakiaren bat bilatu lokartu aurreko denbora luzatzeko. Une horiek, helduen etsipenerako, magikoak eta ahaztezinak izaten dira haurrentzat.

Esan bezala, ipuin honetan ezohiko bikotea aurkitzen dugu; batetik, kontrako ezaugarriak dituztelako, eta, bestetik, guraso bakarreko familia eredu osatzen dutelako. Beren sinpletasunean, elementu horiek guztiak istorioa aberasten dute. Lotara joateko orduaren inguruko ipuintxo honek haur eta gurasoen arteko une ahaztezinak sortuko ditu segur aski. Protagonistak hobeto ezagutzeko, bildumako lehenengo liburua irakurtzea gomendatzen dizuegu.

Magdalena, Peru

Nazkatasuna

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Aduna (Gipuzkoa): Ikaselkar, 2021

ISBN: 978-84-18410-35-2

Hezkuntza emozionala jorratzen duten ipuinen moda bizi dugu azkenaldian. Izan ere, emozioak «lantzeko» liburuak asko ugaritu dira haur literaturan; hala, haserrea, beldurra, inbidia, poza edota tristura hobeto ezagutzeko liburu asko kaleratu dira.

Alde horretatik, liburu hau KUKU! emozio-programaren barruan argitaratua dago. Programa horrek norbere emozioak ezagutzea eta kudeatzen ikastea du helburu, eta saileko izenburuek fitxa bat daukate erantsita, hurrekin dagokion emozioa lantzeko.

Helburu didaktiko garbia hor dagoen arren, istorio polita eta dibertigarria sortu dute egileek, gure uste apalean. Nazka buruzko ipuina dugu honako hau. Nazka oso emozio primitiboa dela dio fitxak; izan ere, substantzia arriskutsuetatik babestu gaitu betidanik. Emozio desatsegina, beraz, baina babeslea aldi berean.

«Nazkatasuna» izenburuak ematen digu pista garbia; hitz-joko horrekin, badakigu liburuaren ardatza zein den: alegia, edozerekin nazka sentitzeko askatasuna. Liburuan, hiru haur agertzen dira larrean jolasean; lasai daude, ardurarik gabe eta pozik. Halako batean, irakaslea inguratuko zaie, eta ikusi duen zikinkeriarekin nazka sentituko du, baina hurrek ez dute ezer ulertzen: zikinkeria nazkagarria al da?

Mikel Valverderen ilustrazioek erabateko pisua dute istorioan. Hurrez gain, larrean dauden hiru animalia marraztu ditu Valverdek, gertatzen ari denaren lekuko mutuak. Haien laguntzarekin, irakurleak umorearekin osatuko du istorioa. Zorionez, haur literaturan ohikoegia den azaleko didaktismoa alde batera utzi, eta oraingoan irudimenaz eta umoreaz baliatu dira emozioen munduan sakontzeko. Bilduma honek eskaintzen duen material didaktikoa osagarria izan daiteke

bitartekariarentzat; hala ere, haurrak bestelako azalpenik gabe ulertuko du ulertu beharrekoa, eta hori da hain zuzen literaturaren balioa.

De Paola, Tomie

Goiko amona eta beheko amona

Itzultzailea: Eva Linazasoro

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2022 (Amets egiteko liburuak)

ISBN: 978-84-9172-269-4

Lehen argitalpena 1973an izan zuen album ilustratua dugu.

Tomie De Paolak bere haurtzaroan bizi izandakoari buruz idatzi eta ilustratutako liburu da. Gaur egun ez da oso ohikoa amona eta birramona elkarrekin bizitzea, liburu eder honetan kontatzen zaigun bezala. Izan ere, Tommy igandero amonaren etxera bisitan joaten da.

Bertan, beheko amonaren eta birramonaren arteko bizimodua ezagutzera ematen digu mutil honek. Eta kontatzen digu nola berak ere, parte hartzen duen amonarekin batera, goiko amonak behar duen zaintzan. Horrek harreman berezia sortuko du Tommyren eta birramonaren artean, goiz batean amak esaten dion arte goiko amona hil egin dela. Egoera horrek eta urteekin etorriko denak (beheko amonaren heriotza) nagusitze prozesuan lagunduko diote protagonistari.

Tomie De Paola idazleak dioenez, lehen argitalpenak, 1973an, hiru kolore baino ez zituen: beltza, arrosa eta okrea. Ez zen erraza izan berarentzat liburu kolore guztiekin irudiztatzea. Horrela, 1998an kaleratutakoa liburu berritatzat hartzen du idazleak, nahiz eta estiloa gutxi aldatu duen.

Esku artean dugun albuma Kalandrakak argitaratua da, eta autorearen azken aldaketak biltzen ditu. Kolore leuneko eta aurrez aurreko irudi erreala agertzen dira, testua osatuz eta norbere bizitzako oroitzapenekin bat egiten lagunduz.

Klasiko bihurtu den liburu aparta dugu, proposamen ederra gure gaztetxoekin irakurtzeko. Elkarrekin bizitzako hainbat esparruz hitz egiteko aukera eskaintzen digu: pertsona nagusiez, heriotzaz, maite duzunaren galeraz...

Pérez Hernando, Fernando

Xirimiri

Itzultzailea: Joseba Sarrionandia

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2022 (Amets egiteko liburuak)

ISBN: 978-84-9172-265-6

Txori ama zuhaitz batean bizi da, lasai, bere lau txorikumeekin: Rut, Thor, Lili eta Rene. Bakoitzak bokal bakarrarekin ikasi du txio egiten, bere izenen bokalarekin; amak, ordea, A bokalarekin denak batuko ditu. Txorikume bakoitza zuhaitzaren adar batean goitik behera dago kokatuta. Halako batean euria hasten duenean, goiko adarrean dagoen txorikumeak azpian dagoenari laguntza eskatzen dio, eta, horrela, adar batetik bestera lau txorikumeak babes bila dabiltzala, txori amaren adarrean elkartuko dira.

Xirimiri proposamen erakargarria da, sinplea eta atsegina: haurrari bokalak aurkezten zaizkio modu jolasgarri batean. Aldi berean, eskuzabaltasunaren eta familiaren maitasunaren balio garrantzitsuak islatzen dira modu umoretsu eta dibertigarrian.

Ilustrazioak ere xumeak eta sinpleak dira: ipuin osoa eszenatoki bakarrean gertatzen da. Marrazkiak koloretsuak eta oso adierazkorrak dira, eta txori bakoitzaren ezaugarriak ondo bereizten dira. Pertsonaiak banan-banan agertzen dira ilustratuak, aurkezpen atsegina eta alai batean. Pertsonaia bakoitzak bi orrialde betetzen ditu.

Horregatik, esan dezakegu ipuin hau ezin hobea dela ozen irakurtzeko eta irakurketak (eta barreak) lehen irakurleekin partekatzeko.

Hasieratik bukaerara irribarrea aterako digun liburu ederra da.

6 urtetik aurrera

Adeletx, Eider

Kiratsa

Ilustratzailea: Iban Illarramendi

Arre (Nafarroa): Pamiela, 2022

ISBN: 978-84-9172-297-7

Kiratsa album ilustratuak Ñimi arkakusoaren abenturak ditu ardatz, eta usain onei eta txarrei buruzko gogoeta plazaratzen digu: zer den usain, zer lurrin, zer kirats... Kukusoa Pantxi txakur dotorearengana iritsi da, eta biak, triska, zapart eta jauzi, usain bila abiatuko dira. Eider Adeletxen eta Iban Illarramendiren liburu honek XVI. Etxepare Saria jaso zuen 2022an, haurrentzako albumak sortzeko Nafarroako toki-entitateek ematen duten saria hain zuzen. Album ilustratuak definitzeko orduan, argi dago gisa horretako liburu gehienetan hitzek eta irudiek bat egiten dutela eta uztarketa horren ondorioz irakurleari bestelako irakurketa proposamen bat eskaintzen zaiola. Gainera, hitzek eta irudiek bat egin arren, ilustrazioek testuak baino garrantzi handiagoa hartzen dute. Izan ere, ilustrazioak ez dira testuak dioena «islatzera» mugatzen, eta irudiek ere, sekuentzia bat osatuz, istorio bat konta dezakete. Eta horixe da album honetan gertatzen dena. Testu labur, errimatu eta onomatopeiaz beteak erabiliz eta ilustrazio koloretsu eta izugarri deskribatzaile eta dotoreez baliatuz, egileek harago hausnartzera gonbidatzen gaituzte. Kontua ez da bakarrik haurrei norberaren garbitasunaren beharra erakustea, etxearen ordenaz eta garbitasunaz ere hitz egiten digu, baita planetaren zikinkeriaz eta kutsaduraz ere. Bai helduek eta bai haurrek badugu zer ikasi. Usainez eta umorez beteriko liburu! Irakurleentzako benetako oparia. Gozatu!

Bilbao, Leire

Itzal itzela

Ilustratzailea: Yolanda Mosquera

Aduna (Gipuzkoa): Ikaselkar, 2022

ISBN: 978-84-18410-43-7

Ikaselkar argitaletxearen eskutik iritsi zaigu liburu eder hau.

Leire Bilbao idazleak eta Yolanda Mosquera ilustratzaileak elkarrekin ekoitzi duten lehenengo album ilustratua da. Bertan, gaur egun sarritan gertatzen den bezala, uda hasieran amona-ilobak

elkarrekin hondartzara doazen pasarte bat kontatzen da. Eta, sarritan, ohikoa den bezala, umeak bere beldurrei aurre nola egingo dien ikusiko da. Horretarako, Leirek eta Yolandak Paule aurkezten digute. «Hondartzara joaten denean, hondar epelaren zurrumurrua sentitzea gustatzen zaio Pauleri. Toallan etzan eta kalatxoriei begiratzea. Harean ezabatuko diren irudiak marraztea... Hondar azpian zerbait mugitzen sumatu duen arte. Geldi geratu da, harrituta, zer egin ez dakiela. Amonaren esaeraz gogoratu da orduan: beldurrari aurre». Egoera horretan, neskaren irudimenak, haren itzalak eta barruan dituen beldurrek bat egingo dute. Amonaren hitzak gogoratuz eta behar besteko kemenak bilduz, «itzal itzel» hauei banan-banan aurre egingo die, eta irudimenezko jolasa bihurtuko da.

Yolanda Mosquera ilustratzaileak beltzarekin kontrastean jartzen ditu gorria, horia, arrosa eta urdin iluna, urruneko irakurketa batez disfrutatzeko; izan ere, bi kolore multzo horiek errealitatea eta irudimena islatzen dituzte.

Azkenean, beldurrak gaindituz, uretan murgiltzen da Paule, amonarekin batera.

Istori honen bitartez, irakurleok izan ditzakegun beldurrak ikusteko gonbidapena egiten zaigu. Jakinik «gutako bakoitzak bere tamaina eta formako itzala daramala aldean», zu, irakurle, ausartuko al zara zurea ezagutzen?

Granell, Glòria

Aitonak utzi zidana

Ilustratzailea: Quim Torres

Itzultzailea: Iraitz Urkulo

Tafalla (Nafarroa): Txalaparta, 2022 (Txo!)

ISBN: 978-84-19319-00-5

«Datorrena datorrela, Glòria, ez galdu sekula irribarrea», esaten zion aitona zaharrak bilobarri. Baina KATAKRAK! Egun batean, aitona indarra galdu zuen, eta handik egun batzuetara malgutasuna. Geroago, KATAKRAK! Ikusmena galdu zuen, baita bizkortasuna ere... Hil zen arte. Glòriak aitona galdutako guztia zuen gogoan, eta, egun hartatik aurrera, neba txikia aitona galdutakoa hasi zen topatzen: hortz berriak aurkitu zituen, indarra, altuera, oroimena...

Glòria Ganellen testuak eta Quim Torresen ilustrazio koloretsu eta biziak osatzen duten kontakizun honek bizitzaren zikloaz hitz egiteko parada ematen digu, eta haurrari heriotza bizitzaren zati banaezina dela ulertzen lagunduko dio. Liburuak aitona-biloben arteko harremanaren bidez zahartzaroaz ere hitz egiten du. Hala ere, liburuak ez dauka tristura-kutsurik; aitzitik, hainbat pasarte eta ilustraziok umore ukitua daukate. Hala izanik, egileak, hasierako esaldiaz baliatuta, kontakizunari itxiera emango dio: datorrena datorrela, Glòria, ez galdu sekula irribarrea.

Haine, Rosie

Giza animaliak gara

Itzultzailea: Ibon Plazaola Okariz

Irun (Gipuzkoa): Alberdania, 2022

ISBN: 978-84-9868-714-9

Album honek Rosie Haineren begirada biltzen du, historiaurretik gaur egun arte gizakiok munduan egin dugun ibilbideari buruzkoa. Liburuak idatzi eta ilustratzerakoan, irakurleei erakutsi nahi die bereziki, batetik, historiaurreko izakien bizimodua, eta, bestetik, gure arbasoekin dugun lotura.

Helburu horiek guztiak bikain lortzen ditu egileak Alberdaniak eta Ekarék argitaratu duten lan honetan. Horretarako, autoreak paleolito garaiko familia bat eta haien bizitzeko modua aurkezten dizkigu, hala nola animaliekin zituzten erlazioak, jakiak lortzeko modua eta haien arteko hartu-eremana.

Gertaera bati ez dio beste batek jarraitzen. Liburuko orrialde bikoitz bakoitzean apaingarririk gabeko esaldi laburrak eta irudi liluragarriak erabiliz, orain dela dozenaka mila urte familia batek biziko lukeen egoera bat irudikatuko du Hainek. Testu motzek eta ilustrazio digitalen xehetasunek garai hartara eramango gaituzte, harik eta azalpenak oraingo aldira ekarri arte.

Liburuaren bukaeran, egilearen oharretan, Haine atsekabetu egiten da, denboraren poderioz naturarekiko atxikimendua galduz joan delako gizakia. Azken orrialdean, oraindik ere gure artean dauden historiaurreko piezen adibideak gehitzen ditu.

Egilearen behar batetik sortua, hots, aspaldiko mundu haren faltatik, oraindik ere giza animaliak garelako gogora ekartzen digun liburua da. Seguru asko antropologiaren bueltan hausnarketa sakonak eta eztabaida interesgarriak ekarriko ditu Lehen Hezkuntzako ikasgeletara.

Hau da Haineri euskaratu zaion lehenengo liburua, eta itzulpena Ibon Plazaolak egin du. Espero dugu jatorriz ingelesez idatzitako aurreko lanak edo etorriko direnak laster gurean izatea.

Del Mazo, Margarita

Artaldea

Ilustratzailea: Guridi

Itzultzailea: Maialen Mujika

Madrid: Nubeocho, 2022

ISBN: 978-84-19253-29-3

Berrito argitaratu dute Margarita del Mazoren *Artaldea* album ederra. Ez dakigu zergatik, baina arrakasta handia izan zuen, eta beharbada eskura izateko aukera ez galtzea erabaki dute Nube Ocho argitaletxeek. Berrargitalpenena azkenaldian maiz gertatzen ari den fenomeno bat da euskarazko haur eta gazte literaturan.

2014. urtean mintegi honetan argitaratu zen iruzkina ekarriko dugu gogora horretarako:

«Erraza da ardi izatea, zeren eta eginbehar bakarrak paseatzea, jatea, lo egitea eta besteei lo egiten laguntzea baitituzte. Pertsona bakoitzari artalde bat egokitzen zaio, eta Mikeli, besteoi bezalaxe, berea egokitu zaio. Lokartu ezinik dabilenean, deitu egiten die, eta ardiak jauzika hasten dira, lokartzen den arte. Egun batean, ordea, lau zenbakia duen ardiak ez du egin nahi beste ardi guztiek bezala, eta hesia ez saltatzea erabakitzen du».

Horrela hasten da narrazio eder hau. Margarita del Mazok istorio goxo eta umoretsu bat ontzea lortu du, maiz erabili izan diren bi kontzeptu modu egokian lotuta: ardiak zenbatzearena eta familiako ardi beltza izatearena.

Ilustrazioek lotura handia dute hitzezko testuarekin, eta Guridi ilustratzaileak oso ondo uztartu ditu umorea eta samurtasuna, irudi soil eta garbien bidez. Istorioaren parte ezinbestekoa da ilustrazioa, eta narrazioari umorea, adierazgarritasuna eta esangura gehitzen die.

Irudimen handiko istorio polita da *Artaldea*, non pertsonaiek arauak apurtzen baitituzte ustekabeko gauzak egin ahal izateko.

Taltec, Olivier

Hau neure zuhaitza da

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz

Tafalla (Nafarroa): Txalaparta (Txo!)

ISBN: 978-84-19319-03-6

Istorio honetako protagonista katagorri bat da, oso pozik eta harro dagoena bere zuhaitzaz eta bere pinaburuez. Baina bat-batean kezkatzen hasten da.... Eta norbait etortzen bada pinaburuak eta zuhaitza kentzera? Katagorri txikiak ondo babestuko du bere zuhaitza, horma handi bat eraikiz. Baina hala ere ez dago lasai... Eta hormaren beste aldean beste zuhaitz ederrago bat pinaburuz josia badago?

Katagorria maitagarria da, nahiz eta lotsagabe samarra izan, eta irakurleak maitasun handia hartuko dio, bere izaera indibidualista eta berekoa gorabehera. Katagorriak duen jokabideak gaur egungo gizartea islatzen du, gizarte berekoa eta diruzalea, norberarena den zerbait besteekin partekatzea gustatzen ez zaiona.

Taltec, idazlea ezezik, liburu honen ilustratzailea era bada, eta ilustrazioek pisu handia dute kontakizunean. Eta esango nuke umorea dela gehien nabarmentzen dena lan honetan, marrazki dibertigarriak eta adierazkortasunez beteak daudelako.

Album ilustratu ederra, jabeagoaz eta gatazken konponketaz umore handiz hitz egiten diguna.

8 urtetik Aurrera

Barrenetxea, Iban

Zarata do maiorrean biolin eta pianorako

Aduna (Gipuzkoa): Ikaselkar, 2022

ISBN: 978-84-18410-44-4

Izenburu iradokitzailez eta beste garai bateko estetika dotorez aurkezten zaigu Iban Barrenetxearen azken lana. Musika klasikoa ardatz hartuta, espazio bakarrean garatzen da istorio ia hitzik gabea. Musikaren interpretaziorako erabakiek dakarten indarrak gelako elementuen eraldatzea dakar.

Ilustrazioen maisutasunak eta zehaztasunak orri batetik bestera *in crescendo* doan istorioak arrunta izan daitekeen egoera bat azaltzen du, detailez beterik; alegia, ikuspuntu desberdinak izatean sor daitekeen muturreko egoera bat.

Musika klasikoaren baliabideek sortzen eta garatzen dute istorioa, bai hitzez, bai irudiz. Elementu horiek ezagututa edo ezagutu gabe ulertu eta jarraitu daiteke kontakizuna, baina, ezagutu ezean, modu erakargarri eta dotorean gonbidatzen gaitu autoreak horiek deskubritzera.

Zubizarreta, Patxi

Tik, bakarrik. Tak, ikarak

Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga

Aduna (Gipuzkoa): Ikaselkar, 2021

ISBN: 978-84-18140-41-3

Bat-batean etxean bakarrik geratu beharrak martxan jartzen ditu sentimendu asko: beldurra, ezinegona, kezka, lasaitasuna, ausardia, maitasuna, asperdura. Erlojuaren tik eta tak-ak gehiago entzuten dira zain egotean eta etxeko isiltasuna handitzean. Horiek bizi dituzte Edda eta Danel haurrek afalorduan bat-batean aitzak etxetik atera behar duenean. Edda txikiari gehiago kostatzen zaio gertatzen zaiona adieraztea, baina bere moduak aurkitzen ditu. Danel nagusiagoa ausardiaz ari da hasieran, baina erlojuaren taupadak iragatearekin batera kezka handitzen zaio.

Birramonaren ahotsa oso presente dago istorioan, nahiz eta berez ez den ikusten. Baina birramona da istorio osoaren abiapuntua: familiako nagusien eta txikiaren zaintzak haur eta nagusien arteko aldeak azpimarratzen ditu, birramona Sara txikitzen doan neurrian Edda eta Danel haurrak handitzen baitoaz. Bizitzaren zikloa bete-bete.

Maite Gurrutxagaren ilustrazio koloretsu, geometriko eta adierazkorrek Patxi Zubizarretaren hitzak azpimarratzen dituzte, eta pertsonaiek egin eta sentitzen dutena bikainki irudikatzen dute. Elementu asko dauzkaten ilustrazioak orriz orri jarraitzeak denboraren igarotzea irudikatzen du, aldaketa txikiekin. Eskuineko orrialdeetan daude ilustrazioak, eta ezkerrekoan ilustrazioak eta testua. Testuak egoeraren une txiki bakoitza dakar, arrunta izan daitekeena aletuz eta ikusgai jarritz.

Handitzearen ezaugarriez beterik datorren liburua da *Tik, bakarrik. Tak, ikarak*.

Ibarzabal, Nerea

Jakelinen egunerokoa

Ilustratzailea: Higinia Garay

Aduna (Gipuzkoa): Elkar, 2022

ISBN: 978-84-18978-23-4

Afalorduan familiarekin afaritan dagoela, aurkikuntza harrigarria egingo du Jakelinek. Ohartzen da, bat-batean, inguruan dituen familiakideak ez direla planeta honetakoak, arrotzak direla. Eta hor hasiko da Jakelinentzat egoera haluzinagarri horren zioa aurkitzeko bidaia.

Egunkari baten forma du album ilustratu honek. Jakelin, egunkariaren jabea, ezin banatuko da hartatik. Hasiera-hasieratik esaten digu, gainera, liburu honetan dagoen informazioa sekretua dela eta irakurtzen jarraitzen badugu eskuartearen suntsituko zaigula. Zorionez ez da horrelakorik gertatzen!

Liburutxo bat aldi berean albuma, egunerokoa, agenda eta koaderno pertsonala dena. Haren orrialdeetan, bere buruaren eta familiaren irudiak eta eguneko gertakariak idazten eta marrazten ditu neskak; momentu honetan gehien axola zaizkion gauzei buruz idazten du, hots, gurasoak arrotzak badira, zer espezietatik datozen jakin nahiko du; etorkizun laburrean bere jatorriko planetara bidaiatzeko duen proiektuaren xehetasunei, bere ametsei eta «haluzinazioei» buruz ere idazten du; bidaia hori egiteko beharrezkoen dituen gauzen zerrendak egingo ditu; Ximu

lagunarekin dituen gorabeherak ere erregistratuko ditu, eta hilabete oso bateko eguneroko bat eta egutegi bat osatuko ditu gertaera garrantzitsu guztiak gogoratzeko.

Idatzita dagoen estiloak irakurketa arina ahalbidetzen du. 45 orrialdetan, erritmo biziz garatuta dago istorioa, eta, uneoro, tonu errealista eta zuzena gailentzen da, eta horrek egiantzekotasuna ematen dio kontakizunari.

Gainera, Higinia Garayk ilustrazioz josi du Jakelinen eguneroko hau, eta, horri esker, irudituko zaigu 9 urteko Jakelinen egonezina, harridura eta biziko dituen makina bat egoera xebreak haren irudimenean ez, baizik benetan gertatutakoak direla.

Irudimenari gorazarre ederra egiten dion kontakizuna da honako hau. Esku artean dugun liburuak dibertitzea, entretenitzea eta une, pasadizo, pertsonaia eta egoera xebreak irakurlearekin konpartitzea beste helbururik ez du, haur irakurle hasiberriari begira. Ikaselkar argialetxeak, Nerea Ibarzabalek eta Higinia Garayk sortu dute Kimu bildumako album ilustratu berri hau.

Lertxundi, Anjel

Botoitxo

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Donostia: Erein, 2022 (Pikotxean; 07)

ISBN: 978-84-9109-732-7

«Botoitxo» deitzen zioten mertzeria bat zuelako. Emakume txikia zen, gizen samarra eta atsegina. Etxean zerbait behar zenean, gure protagonista bidaltzen zuten Botoitxoren mertzeriara, eta mutikoa pozik joaten zen enkargua egitera. Denetarik zegoen han, altxorrez betetako armairu handi batean, mila mota eta koloretako botoiak zeuden kaxoietan gordeta. Tiradera bakoitzak gordetzen zuenaren inguruan kontakizunen bat zekien Botoitxok, anekdotaren bat bestela, eta poliki-poliki denak kontatu zizkion mutikoari.

Tiradera bat, aitzitik, giltzapean egoten zen beti. Zergatik, ordea? Zer gordeko zuen?

Sekretuez hitz egiten digu liburu honek, barne-barnean ezkututzen ditugun sekretuez. Sekretuak bizitza osoan gorde ditzakegu, edota pertsona aproposarekin topo eginez gero behingoz askatu.

Nostalgiaz beteriko kontakizun hunkigarria idatzi du Lertxundik. Urte gutxi pasatu diren arren, oso urrun geratu da liburuan deskribatzen den gizartea. Bizimodua aldatu den heinean, mertzeriak eta halako denda txikiak apurka-apurka desagertu dira gure herrietatik.

Literatura goxoa eta kalitatezkoa. Eskertzekoa da gaia aukeratzekoan izan duen ausardia. Gaur egun irakurle gazteen artean modan dauden liburuetatik aldentzeko beldurrik ez du izan idazleak, eta, horrez gain, gizonetako protagonista bat aukeratu du femeninotzat dugun munduan murgiltzeko. Ohiturari jarraituz, oraingoan ere, Antton Olariaga ilustratzailearen marrazkiek ederki osatzen dute liburua.

10 urtetik aurrera

Letria, José Jorge

Gerra

Ilustratzailea: André Letria

Itzultzailea: Uxoia Iñurrieta

Bilbo: A fin de cuentos, 2022

ISBN: 978-84-123181-6-6

Badira album batzuk ondo pasatzeko balio dutenak eta beste batzuk hausnartzeko eta kontzientzia sortzeko balio digutenak. *Gerraren* kasua da.

Gerrak eguna urratzen du, gaixotasun xuxurlatu eta bizkor batek bezala. Gerrak ez du entzuten, ez ikusten, ez sentitzen. Gerrak beti daki non diren beraren beldur eta beraren zain. Gerrak beldur guztien forma basatia hartzen du. Gerra gorrotoak, zapaldu nahiak eta ezinikusiak elikatzen dute. Gerrak indarrez hartzen du errugabeen amets leuna. Gerrak goibeldu, zanpatu eta isilarazi egiten du. Gerra oinaze makina bat da, amorru guztien fabrika gaiztoa. Gerran ez dago itxaropenik. Dena da bakardadea eta suntsipena. Kaosa eta iluntasuna.

Horrela deskribatzen du José Jorge Letria idazle portugaldarrak gerra. Hitz gutxi erabiltzen ditu, baina mezu zuzena, indartsua eta iradokitzailea helarazten digu. Eta nola eman forma beldurra edo atsekabea kontzeptu abstraktuei? Nola islatu paperean? Nola eutsi mezua indarrari? Nola deskriba diezaiekegu haur eta gazteei gerrak dakarren mina eta iluntasuna?

Andre Letria arduratu da bere aitaren hitzei forma emateaz, eta sinbiosi perfektua lortu du testuaren eta irudiaren artean. Argia eta iluntasuna maisuki erabili ditu biziraupenaren aldeko borroka irudikatzen. Paper lodiko edizio zaindu honek denok ezagutzen ditugun sinboloak kateatzen ditu, memorian grabatzen diren irudiak sortuz. Nazioartean saritutako album honen arrakasta handienetako bat, hain zuzen ere, beldurraren kutsatze-prozesua erakusten duten sinboloak kateatzeko abilezian datza. Funtsezko liburua hamar urtetik aurrerako haurrentzat eta helduentzat, gerrak ez baititu arraza, nazioa edo adina bereizten. Zoritxarrez, unibertsa da.

Calveiro, Marcos

Bagdadeko postaria

Ilustratzailea: Miguel Ángel Díez

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2022 (Paper Txoriak Sail Berdea; 25)

ISBN: 978-84-9106-998-0

Bagdad hiriak sentimendu kontrajarriak ekartzen dizkigu burura. Alde batetik, exotismoa iradokitzen digu, *Mila eta bat gauen gauak* liburuaren magia, ekialdeko argia. Baina, bestetik, gerra-irudiak, suntsitutako hiriak, fanatismo erlijioso eta mina datozkigu. XXI. mendeko lehen urteak latzak izan ziren Iraken: inbaditua izan zen, eta leherketa eta tiro hotsak nagusitu ziren. Familia askok aurre egin behar izan zieten erlijio-ezberdintasunei, eta suniten eta xiiten arteko gorrotoa areagotu egin zen.

Marcos S. Calveirok, egoera berri eta triste horretaz baliatuz, istorio bikain hau idatzi zuen. Istorioaren protagonista Abdulwahid izeneko mutiko bat da. Haren aitak, Bagdaden geratzen den postari bakarrenetakoak, moto istripu bat izan du. Orduan eskatzen dio semeari misio garrantzitsu bat amaitzeko: Abdulwahidek gutun misterioitsu bat entregatu behar du. Misio horretan, bere lagun Ahmedek lagunduko dio, xiita bera, haiek ez bezala, sunitak baitira.

Calveiroren maisutasunari esker, irakiar kulturaren murgilduko gara bete-betean, eta xiiten eta suniten arteko ezberdintasuna, gerra nola hasi zen, arabierazko hitz batzuk, ramadana noiz den eta horrek zer esan nahi duen, janari mota eta abar ezagut ditzakegu. Misterio kutsu batekin deskribatuta dago; horrek irakurlea erakartzen du, eta protagonistek sentitzen duten beldurrarekin dardarka jartzen.

Baina, istorio honetan zerbait deigarria bada, **itxaropen-mezua** da. Gizakiak gerraren suntsipen fisiko eta moraletik bizirik irauteko duen gaitasuna. Bizitzen jarraitzeko itxaropena, alde desberdinen arteko adiskidetzaren itxaropena.

10-12 urte bitarteko umeei zuzendutako liburua da, baina ez legoke gaizki adin tartea zabaltzea irakurle gehiagorengana iristeko. Gizatasun lezio bat!

12 urtetik aurrera

Atxaga, Bernardo

Sara izeneko gizona

Arre (Nafarroa): Pamiela, 2022 (Pamiela tamaina ttikia; 20)

ISBN: 978-84-9172-215-1

1996an argitaratu zuen lehenengo aldiz Pamiela argitaletxeak, eta orain berrargitaratu du, edizio berrituan.

Lehen gerra karlistan kokatzen du Atxagak istorio hau. Martin Saldiasek, Sara goitizenez, Zumalakarregi jeneralaren alde egiten du beste bandoan zelatari lana eginez. Gerrako giroa eta beldurrak, bizipenak, espioitza, mesfidantzak eta traizioak kontatzen dizkigu. Intrigazko istorioa da, baina narrazioaren muina pertsonaiaren desengainu ideologikoa da, haren bilakaera, fundamentalismo ideologikotik barneko ahotseraino.

Modu konplexu hori, jeneralaren kanpamentuko eguneroko bizitza (txantxak, jolasak, jatorduak...) eta pertsonaiak eta haien sentimenduak oso ondo deskribatuta daude.

Eta benetan interesgarriak dira pertsonaia batzuen gogoetak eta Aneral kafeko ugazaba-andrearen (Sara emakume «konfidentea») etengabeko «presentzia» eta oihartzuna. Liburua oso ondo irakurtzen da, atseginez; guztiz murgiltzen gaitu bai giroan, bai eta Sararen esperientzian eta bizipenetan ere.

Orwell, George

Abereen etxaldea

Ilustratzailea: Quentin Gréban

Itzultzailea: Juan Martin Elexpuru

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2022

ISBN: 978-84-1370-304-6

Abereak matxinada bat prestatzen ari dira Manor etxaldean.

Gizakiak dira etsaiak! Abere guztiek bat egin behar dute etsaiaren aurka, eta aldarrikatu abere guztiak berdinak direla!

Eta, eguna iristerako, txerriek baserria kontrolpean hartua dute, eta funtzionamenduaren ordena berri bat ekartzen dute, non animalia guztiak berdinak diren.

Hasieran denek dute beren zeregina eta besteenganako laguntza oso garbi, baina denborak aldatu egingo ditu gauzak, eta agintaritza berriz ere lehengora itzuliko da.

Alegia hau idazteko, Orwellek giza eta animalia ezaugarriak ematen dizkie bere etxaldeko abereei. Liburu honetan, gairik garrantzitsuena Errusiako iraultzaren gertakarietan eta Iosif Stalinen kausaren traizioan oinarritutako istorioa kontatzea izan zen, eta egilearen desira zen, gainera, fabula honen bitartez ingeles eta amerikar irakurleak ohartaraztea errealitate honi buruz. Liburua kaleratu zenean, eztabaida ugari sortu zen bazterretan. Izan ere, animalien mundua eta baserrian sortzen den matxinada eredu totalitario berrietara aldatzen diren gizartearen gaitzen ispilu dela erakutsi nahi izan zuen.

Hizkuntza eta idazkera oso esanguratsuak dira literatura lan honetan. Erraza da irakurtzen. Orwellek ahalegin handia egin zuen hori lortzeko. Oso ondo zekien diktadoreek jendearen pentsaera manipulatzeko dutela hizkuntza kontrolatuz. Gaztetxoekin, klasean edo etxean, politika, komunismoa, kapitalismoa, antolaketa sistemak, totalitarismoa edo mundu gerra lantzeko liburu egokia.

Beste elementu aipagarri bat Quentin Grébanen ilustrazio lana da. Ibaizabal argitaletxeak ere formatu handiko liburu ilustratu eder batean argitaratu du jada literaturaren historian klasikoa den lan handi hau. Ez da euskarara ekartzen den lehenengo aldia. J. M. Elexpuruk itzulpen txukuna eta duina egin du lan honetan.

XX. mendean bezain gaur egungoa izaten jarraitzen du Orwellek orain dela 77 urte idatzitako fabula moderno honek.

14 urtetik aurrera

Ramos, Pedro

Ewok bat lorategian

Itzultzailea: Julen Gabiria

Barakaldo (Bizkaia): Giltza, 2022 (Periskopia; 11)

ISBN: 978-84-8378-577-5

Badago gai bat zokoratua dagoena gure gizartearen, ezkutuan mantentzen duguna, batik batik gazteei dagokienez: suizidioa. Gai korapilatsu hori gorputzeko, aipagarria da egileak nola egituratzen duen eleberria: lehen lerroetan, David pertsonaia nagusia aurkeztuko zaigu, baina, zuzenean ezagutu beharrean, haren arreba nagusiak atzerritik igortzen dizkion posta elektronikoen bitartez ezagutuko dugu. Hala, terapian dagoela eta zulo beltz batean murgilduta dagoela jakingo dugu, alkohola edan eta klasetik piper egiten duela. Bigarren zatian, ordea, Daviden bizitzako egun arrunt bat aurkeztuko zaigu, 6:03ean hasi eta 21:21ean bukatzen dena. Egunerokotasunean gertatzen diren pasarteak pentsamendu eta burutazio ilunekin tartekatzen dira, eta horrek aukera emango dio egileari

suizidioaren inguruan hausnartzeko: «Ebakiak egiten ditut gorputzean, odola isurtzen dut, eta nigan bizi den larritasuna uxatzea lortzen dut. Arreta handiz ezkututzen ditut nire zauriak. Merezi dut gertatzen zaidan guztia. Gertatzen zait merezi dudan guztia. Ez naiz ezer. Inor ere ez» (42. or). Ildo horretatik, depresiotik ihes egiteko, beharrezkotzat jotzen du nor bere isolamendutik ateratzea, sentitzen dugun eta barneratu dugun ezkortasun horretaz hitz egitea. Eta, horregatik, bizirik jarraitzeko, gauzen zerrendak idaztea ezinbestekotzat jotzen du egileak, bakardadetik eta isolamendutik aldentze aldera. Era berean, edozein gunetan topa daiteke gure atsekabeekin bat egingo duen pertsona hori, hurbiltasuna erakutsiko digun lagun hurko hori. Eleberrian zehar, kapitulu motzak tartekatzen dira, eta estiloa zuzena eta soila dela esan genezake. Moralkeria hutsaren bidetik ihes egin eta mezu itxaropentsua erakusten duen lan bikain baten aurrean gaude: ertz asko erakutsi eta hausnarketarako beta eskaintzen duen lan aipagarria da.

Rodríguez, Mónica

Trumpet

Itzultzailea: Aitor Arana

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2022 (Ameslari; 30)

ISBN: 978-84-1370-054-0

Eleberri honek Malik zaharraren eta Mateo gaztearen arteko harremana jorratzen du, Madrilgo kaleetan zehar tronpetaren blues doinuek eraikitako elkartasun irmoa. Era berean, «ikusezinez» hitz egiten digu, kalean musika jotzen ari diren eta deserosoak suertatzen zaizkigun «beste» horiez. Mateori, ordea, liluragarria suertatzen zaio Maliken tronpetak igortzen dituen blues doinu goxoak, Trumpet deituriko txakur bat bidaide duen beltz zaharraren melodia hunkigarriak. Eta bien artean uztardura berezia sortuko da, musikaren bitartez sortzen den konexio liluragarri bat, hori baita musikaren ezaugarrietako bat: aurreiritziez gain gure erraietan zirrara sortzeko duen gaitasun aparta. Eta, musikaz haratago, bizitzaz eta denborak eragiten dituen zauriez mintzo zaigu, atsekabeaz eta bihotzaren tristuraz, Malikek jadanik iragan dituelako New Orleanseko tabernetan bizitako garai dirdiratsuak, bere arteak eta abileziak gehiengo bat txunditzen zueneko garai gogoangarri hura. Baina errealitatea krudela da, bizitzaren joan-etorriek aztarnak uzten dituzte ariman, eta egunerokotasunak akitu egiten du gure izatea. Dena den, Maliken begirada tristearen atzean, Mateo gazteak haren espirituarekin bat egingo du: haren musikaz ziprztinduko da, itxaropenari eta esperantzari atek zabalduz. Mónica Rodríguezek gizatasunez betetako pertsonaiak gorputzu ditu eleberri bikain honetan, prosa poetikoz eta sentimenduz eraikia, gizatasunaren eta adiskidetasunaren indarra aldarrikatuz irakurlearen bihotzera iritsiko den istorio gogoangarria.

Sarrionandia, Joseba

Munduari bira eman zion ontzia

Ilustratzailea: Ares

Arre (Nafarroa): Pamiela, 2022 (Mila gau; 13)

ISBN: 978-84-9172-283-0

«Benetako historia bat nahi dut, amama! (...) Ja ez naiz umea. Historia jakin nahi dut, h maiuskularekin». Horrela hasten da Joseba Sarrionandiak eta Ares ilustratzaile kubatarrak elkarlanean eginiko eleberri historiko hau. Galde-erantzunen egituraz baliaturik, gaur egungo gizarteaz eta historiagileen lanbideaz hausnartuko du egileak, berak dioen bezala benetako historia

istorioekin nahasten baita. Argi uzten du, beraz, lehen lerroetatik, historiagilearen lana iritziz eta mitifikazioz beteta dagoela, datu objektiboez haratago ikuspegi bat eskaintzen dela. Hala, gonbita egiten zaio irakurleari barneratuak dituen iritziez eta ikuspegiez hausnartzeko. Elkarrizketa sokratikoaren bidetik, amamaren eta bilobaren arteko hartu-emanak historiaren zirrikituak zabalduko dizkigu, hala nola munduari bira lehen aldiz eman zioten gizon ausarten balentria harrigarriak: nola egiten ziren marinelen kontratazioak, orain dela 500 urteko itsasontzien ezaugarriak, ontzigainean egiten zituzten lan neketsuak, aurkitu zituzten lurralde miragarriak, eta, batik bat, tamaina horretako abentura batean pairatu zituzten neke eta oinaze gupidagabeak. Hasierako espedizioan Magallanes buru zutela bost ontzi irten baziren ere, itzulera ontzi bakarra iritsi zen portura, Juan Sebastian Elkanoren gidaritzapean. Hala, bada, munduko lehen globalizazio handiaren sustraia jarri zuen aipaturiko espedizio horrek. Eta, historian zehar, beste hainbat globalizazio gauzatu dira, Ares ilustratzaileak maisuki marrazten dizkigun hegazkin-ontziek edo diru-paperez eginiko munduko bolak irudikatzen duten bezala. Testuaren gainetik bere zigilua uzten digu ilustrazio koloretsu eta adierazkorren bitartez, eta lana maisuki borobiltzen du. Memoria eta iritzi kritikoa sustatzen dituen lan mamitsu baten aurrean gaude, gure historiaren zati garrantzitsu bat maisuki lantzen duena.

Zerrenda berezia

Agiriano, Asun

Atzamarra

Ilustratzailea: Marina García

Aduna (Gipuzkoa): Elkar, 2022

ISBN: 978-84-1360-222-6

Kontaketa intimoa proposatzen du Asun Agirianok *Atzamarra* liburuan. Poesiak, errelatoak eta albisteak bat egiten dute istorioan. Protagonista haur izanda amamarekin zihoala izandako istripua dago oinarrian, eta baserri giroan haurrari istripua eta galera ulertzeko kontatutakoa aletzen da orriak pasatu ahala. Mina bideratzeko hartutako jarreraren isla da liburua, «Benetakoaren eta asmatutakoaren artean... jolasa». Haur bat protagonista duen liburua izanik ere, ez dago haurrei mugatuta, adin guztiei keinu egiten baitie.

Marina Garcíaen marrazkiek oinarritzakoa adierazten dute hasieran, zehatzera jotzen dute protagonistak hiru urte zituenean gertatutakoa kontatzeko, eta metaforikoagoa bihurtzen da istorioaren bukaera aldera. Argazkien eta marrazkien konbinazioak errearen eta ipuinaren artean mugitzera daramate irakurlea.

Erritmo pausatuz orriak pasatu ahala pentsatzera garamatzen liburua da *Atzamarra*.

Añorga, Pello

Din dilin dan

Ilustratzailea: Maite Rosende

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2022

ISBN: 978-84-17940-92-8

Liburutegi on bat osatu nahi badugu, badaude oinarrizko eta ezinbesteko liburuak. Irakurtzen eta berrirakurtzen diren liburuak, altxor txiki bat bezala gordetzen direnak, badakigulako denboran iraungo dutela. Eskuetan dudan liburu txiki baina aldi berean handi hau ezinbesteko horietakoa da. Ezinbestekoa ahozko tradizioa, gure kultura eta gure hizkuntza maite duen ororentzat.

Din dilin dan euskal ahozko tradiziotik jasotako formulez, kantez eta poesiez osatuta dago. Eta Pello Añorgak berak sortutako poematxoez. Elkar ukitzeko, kilimak egiteko, kulunkatzeko, trostan aritzeko, lo egiteko, esnatzeko, bazkaltzeko, konjuratzeko, une bereziak partekatzeko aproposak. Guztiz gomendagarria 0tik 7 urterako haurrekin errezitatzeko eta jolasteko.

Mokadu txikiz betetako liburua da, haurren eta helduen arteko komunikazioa elikatu, hiztegia aberastu eta gure kulturaren transmisioa indartuko duena. Hitzak laztantzeko eta gure hizkuntzaren musikaltasunaz jabetzeko formula ezin hobea.

Oharra: liburu honek bitartekari bat behar du, gurasoak, aitona-amonak, irakasleak, liburuzaina edo haurrekin harremanetan dagoen edozein. Liburuaren amaieran agertzen den

QR kodea oso lagungarria izango zaizue. Eskaneatu!

Eskerrik asko Pellori eta atzean dagoen talde guztiari liburu erraldoi hau oparitzeagatik!

HITZA

Hitzaren giltza,

Hitzaren giltza,

Ahoa ireki

eta elkarrekin mintza.

Brunhoff, Jean de

Babar familiarartean

Itzultzailea: Iñigo Satrustegi

Rubí (Barcelona): Picarona, 2022

ISBN: 978-84-9145-537-0

Babar elefantea haur literaturako pertsonaiarik maitatu eta ezagunenetako bat da. Jean de Brunhoff (1899-1937) idazle eta ilustratzaile frantsesak sortu zuen, 1931n. Ideia haren emaztearena izan zen, Cecilerena; gauero-gauero kontatzen zien istorioren bat bere seme-alabei, eta Babar elefantetxoarena izan zen haietako bat. Brunhoffek Babar protagonista dela-eta zazpi liburuxka argitaratu zituen, eta gaur aztertuko duguna bigarrena izan zen.

Esan beharra dago, ipuin hauek behar bezala baloratu ahal izateko, kontuan izan behar dugula egilea bizi izan zen garaia eta herrialdea, XX. mendearen hasierako Frantzia koloniala, non hiriko bizitza burgesa boladan zegoen eta familia balioak oso tradizionalak ziren.

Babarren istorioa honela hasten da: elefantea gaztea zela, ehiztari gupidagabe batzuek ama hil zioten, eta momentu horretan erabaki zuen mundua ezagutzera joatea. Jendea bizi den hiri batera helduko da eta hor hasiko da haren eraldaketa. Adineko andre baten laguntzaz, elefantea hazi egiten da, gizakiak bezala arropak janzten ditu, bi hankaren gainean ibiltzen da, jakintsu bihurtzen da... Eta oihanera bueltatzen da.

Kontakizun honetan, Babarren familia agertzen zaigu. Celeste emaztea ernari dago, eta erreinuan ez dago beste konturik. Baina a ze ustekabea! Ume bat izan beharrean, hiru jaioko dira: Pom, Flora eta Alex. Handik aurrera, elefantetxoen bizitzako lehen hilabeteei buruzko pasadizo batzuetan oinarrituko da kontakizuna.

Elkartasuna, adiskidetasuna, pazientzia, talde-lana pertsonen sortzen zaizkien arazoak konpontzeko... Horiek dira Brunhoffen ipuinetan topatuko ditugun balio ezinbesteko batzuk.

Babarren pertsonaia, nahiz eta elefante handia eta printzipioz hain goxoa ez izan, bere nortasunagatik eta bere jokatzeko moduengatik oso maitekorra eta hurbila egiten zaie haurrei. Segurtasuna, zintzotasuna eta sinpletasuna transmititzen du, eta istorioek hasierako arrakasta bera izaten jarraitzen dute.

Lehen aipatu dugun bezala, ipuinaren ilustrazioak Brunhoffek berak eginak dira. Brunhoffek album ilustratua irauli zuen Babarren pertsonaiarekin. Ipuin ilustratu moduko bat sortu zuen lehena izan zen. Irudiak oso koloretsuak eta xehetasunez beteak dira; orrialde bakoitzean testuarekin tartekatzen dira, eta istorioarekin oso ondo uztartuak daude. Batzuek orrialde biak hartzen dituzte, eta horrek asko laguntzen dio kontakizunari.

Azken finean, ipuin ederra, protagonista xarmagarriak eta ilustrazio gozoak eta aberatsak dituen, irakurketaz behar den bezala gozatzeko.